

14 ZARANDOAKO SAN SALBATORE SAN SALVADOR DE ZARANDOA (LARRABETZU)



(OB)



(OB)

Zarandoako San Salbatoreren izenpeko basiliza Gaztelumendi mendiaren hegal batean dago, auzoa osatzen duten baserrien multzoa baino kota garaiagoan kokatuta.

Gaur egun ikusten den basiliza XVIII. mendeko eraikina da, baina horietan berrerabilitako aztarna batzuek eta inguruetan berreskuratutako arrastoek eraikinaren Erdi Aroko jatorria salatzen dute.

Arrasto horietako bat dugu horietako batean ageri den bao monolitikoa. Leiho hori bloke laukizuzen batean landuta dago eta zutabe batek banandutako bi zulo dauzka; zutabearen gainean, koroa bikoitz batek inguratutako bi arku biribil ageri dira. Gainera, alea gehiegi apaintzen duten motibo batzuk ageri dira leihoan bertan, hala nola, harlandua eta erdialdeko baoa inguratzen duten lerro eta ebakidun angelu batzuk.

Disko-formako hilarri-zati bat ere aurkitu da aztarnategi honetan. Aztarna hori aldarean berrerabili da eta hainbat ikertzailek aipatu dute. Hilarri-zatiak gurutzea dauka, zirkunferentzia zentrokide baten barruko eraztun horzdun batean inskribatua eta VII. eta VIII. mendeen arteko kronologia egotzi zaio. Beraz, Goi Erdi Aroko nekropoli bat izan bide zen basilizaren inguruan.

La ermita de San Salvador de Zarandoa se encuentra en una ladera del monte Gastelumendi, en una cota dominante con respecto al grupo de caseríos que forman el barrio.

La construcción que podemos observar en la actualidad es un edificio del siglo XVIII, aunque algunos elementos reaprovechados en sus muros y recuperados en sus alrededores nos acercan a su pasado medieval.

Es el caso del vano monolítico situado en uno de sus muros y realizado en un bloque rectangular con abertura separada en dos luces por una columna sobre la que se sitúan dos arcos circulares recercados por una doble corona. Presenta también algunos motivos que recargan de decoración la pieza, como son algunas líneas y algunos ángulos incisos que bordean el sillar y el vano central.

También procede de este emplazamiento un fragmento de una estela discoidal reaprovechada como pieza de altar, citada por diversos autores, que presenta una cruz inscrita en un anillo dentado sobre circunferencia concéntrica y datada en los siglos VII y VIII; lo que refleja la existencia de una necrópolis altomedieval en los alrededores.